

## UDALBATZARI

## AL AYUNTAMIENTO PLENO

**EH BILDU taldearen Arau Proposamena, Eraikin, Instalazio eta Obren gaineko Zerga (EIOZ) arautzen duen Zerga Ordenantza aldatzea dela eta.**

**Proposición Normativa del Grupo EH BILDU relativa a la modificación de la Ordenanza Fiscal Reguladora del Impuesto sobre Construcciones, Instalaciones y Obras (ICIO).**

Udaleko EH BILDU Taldeko bozeramaileek, 2017ko abuztuaren 10ean, ondoko Arau Proposamen hau aurkeztu zuen, Eraikin, Instalazio eta Obren gaineko Zerga (EIOZ) arautzen duen Zerga Ordenantza dela eta:

La Portavoz del Grupo EH BILDU presentó con fecha 10 de agosto de 2017 la siguiente Proposición Normativa, relativa a la Ordenanza Fiscal Reguladora del Impuesto sobre Construcciones, Instalaciones y Obras (ICIO):

EH Bildu udal taldeak aztertzeko aurkeztu du ondoko arau proposamena "Eraikin instalazio eta obren gaineko zerga"ren eranskina aldatzeko, jarraian doazen puntuak gehituz, 4, obra txikiak atalean:

El grupo municipal EH presenta la siguiente proposición normativa para modificar el anexo del Impuesto sobre Construcciones, Instalaciones y Obras, consistente en añadir los siguientes puntos, en el apartado de obras menores, 4:

Honako hau jartzen duen tokian:

Donde dice:

4.- Lan txikiak:

4.-Obras menores:

d) 150 m2 baino eremu handiagoa ez duten lokaletan egindako eraikuntzak, instalazioak eta obrak, baldin eta lizentziaren titularrak, negozio kopurua dela-eta, ez badu Ekonomia Jardueren gaineko Zerga ordaindu behar, eta alta emanda badago beheko epigrafeetan ageri den jardueretako batean (\*1).

d) Las construcciones, instalaciones y obras realizadas en locales con una superficie no superior a 150 m2, si el titular de la licencia, debido al volumen de negocios, está exento de pagar el Impuesto sobre Actividades Económicas y está dado de alta en alguno de los epígrafes abajo mencionados (\*1).

ZERGAREN ZENBATEKOA: % 2,50

IMPORTE DEL IMPUESTO: % 2,50

e) 150 m2 baino eremu handiagoa ez duten lokaletan egindako eraikuntzak, instalazioak eta obrak, baldin eta lizentziaren titularrak, negozio kopurua dela-eta, ez badu Ekonomia Jardueren gaineko Zerga ordaindu behar, eta alta emanda badago beheko epigrafeetan ageri den jardueretako batean (\*1), eta honako alde hauetan instalatu diren edo lehendik zeuden jardueretan egindako eraikuntzak, instalazioak eta obrak badira: Bidebieta, Altza, Intxaurren, Egia, Loiola, Martutene eta Amara.

e) Las construcciones, instalaciones y obras realizadas en locales con una superficie no superior a 150 m2, si el titular de la licencia, debido al volumen de negocios, está exento de pagar el Impuesto sobre Actividades Económicas, está dado de alta en alguno de los epígrafes abajo mencionados (\*1), y las construcciones, instalaciones y obras se han instalado o las actividades existían previamente en las siguientes zonas: Bidebieta, Altza, Intxaurren, Egia, Loiola, Martutene y Amara.

ZERGAREN ZENBATEKOA: % 2

IMPORTE DEL IMPUESTO: % 2

(\*1) apirilaren 20ko 1/1993 FDAko Eranskineko jarduerak 4d) puntuari atxikiak.

- Multzoak: 64., 65., 66., 67., 69., 93. eta 97.

- 94., 95. eta 96. multzoetan honako taldeak:

942, 943, 944, 945, 951, 961, 962, 963, 965, 966, 967, 968.

(\*1) Las actividades del anexo del DFN 1/1993, de 20 de abril, descritas en el punto 4.d).

- Agrupaciones: 64, 65, 66, 67, 69, 93, 97.

- En las agrupaciones 94, 95 y 96 los siguientes grupos:

942, 943, 944, 945, 951, 961, 962, 963, 965, 966, 967, 968.



Hau esan behar du:

Debe decir:

4.- Lan txikiak:

d) 150 m<sup>2</sup> baino eremu handiagoa ez duten lokaletan egindako eraikuntzak, instalazioak eta obrak, baldin eta zergapekoak, obraren jabea izanik, bere izenean garatzen badu obra egiten den lokaleko jarduera; negozio kopurua dela-eta, ez badu Ekonomia Jardueren gaineko Zerga ordaindu behar; eta alta emanda badago beheko epigrafeetan ageri den jardueretako batean (\*1).

4.-Obras menores:

d) Las construcciones, instalaciones y obras realizadas en locales con una superficie no superior a 150 m<sup>2</sup>, si el obligado tributario en concepto de dueño de la obra desarrolla en nombre propio la actividad en el local en el que se ejecute la obra, siempre que debido al volumen de negocios, esté exento de pagar el Impuesto sobre Actividades Económicas y esté dado de alta en alguno de los epígrafes abajo mencionados (\*1).

ZERGAREN ZENBATEKOA: % 2,50

IMPORTE DEL IMPUESTO: % 2,50

e) 150 m<sup>2</sup> baino eremu handiagoa ez duten lokaletan egindako eraikuntzak, instalazioak eta obrak, baldin eta zergapekoak, obraren jabea izanik, bere izenean garatzen badu obra egiten den lokaleko jarduera; negozio kopurua dela-eta, ez badu Ekonomia Jardueren gaineko Zerga ordaindu behar, alta emanda badago beheko epigrafeetan ageri den jardueretako batean (\*1), eta honako alde hauetan instalatu diren edo lehendik zeuden jardueretan egindako eraikuntzak, instalazioak eta obrak badira: Bidebieta, Altza, Intxaurren, Egia, Loiola, Martutene eta Amara.

e) Las construcciones, instalaciones y obras realizadas en locales con una superficie no superior a 150 m<sup>2</sup>, si el obligado tributario en concepto de dueño de la obra desarrolla en nombre propio la actividad en el local en el que se ejecute la obra, siempre que debido al volumen de negocios, esté exento de pagar el Impuesto sobre Actividades Económicas y esté dado de alta en alguno de los epígrafes abajo mencionados (\*1), y las construcciones, instalaciones y obras se han instalado o las actividades existían previamente en las siguientes zonas: Bidebieta, Altza, Intxaurren, Egia, Loiola, Martutene y Amara.

ZERGAREN ZENBATEKOA: % 2

IMPORTE DEL IMPUESTO: % 2

(\*1) apirilaren 20ko 1/1993 FDAko Eranskineko jarduerak 4d) puntuari atxikiak.

- Multzoak: 64., 65., 66., 67., 69., 93. eta 97.

- 94., 95. eta 96. multzoetan honako taldeak:

942, 943, 944, 945, 951, 961, 962, 963, 965, 966, 967, 968.

(\*1) Las actividades del anexo del DFN 1/1993, de 20 de abril, descritas en el punto 4.d).

- Agrupaciones: 64, 65, 66, 67, 69, 93, 97.

- En las agrupaciones 94, 95 y 96 los siguientes grupos:

942, 943, 944, 945, 951, 961, 962, 963, 965, 966, 967, 968.

Ogasun Batzordeak, 2017ko irailaren 13ko bilkuran, aurreko Arau proposamena, zuzenketarik gabe, aztertu du.

En sesión de 13 de septiembre de 2017, la Comisión de Hacienda ha dictaminado, sin enmiendas, la precedente Proposición Normativa.

Aurreko guztia dela eta, ERABAKI hauek onartzea proposatzen zaio Udaltzari:

En base a cuanto antecede, se propone al Ayuntamiento Pleno que adopte los siguientes

ERABAKIAK:

ACUERDOS:

**LEHENA:** Onartzea Eraikin, Instalazio eta Obren gaineko Zerga (EIOZ) arautzen duen Zerga Ordenantza aldatzea, azalpen zatian adierazitakoaren arabera.

**PRIMERO:** Aprobar la modificación del Anexo a la Ordenanza Fiscal Reguladora del Impuesto sobre Construcciones, Instalaciones y Obras (ICIO), descrita en la parte expositiva.

**BIGARRENA:** 2018ko urtarrilaren 1az geroztik indarrean izango den erabaki hau 1989ko uztailaren 5eko 11/1.989 Foru Arauko

**SEGUNDO:** Tramitar este acuerdo a regir desde el 1 de enero del año 2018, conforme al procedimiento establecido en el art. 16 de la



Ogasun Batzordea  
Comisión de Hacienda

(Gipuzkoako toki ogasunak arautzen dituen) 16. artikuluan ezarritako prozeduraren arabera izapidetzea; hartara, behin-behineko erabakiak behin betikotzat hartuko dira, baldin erreklamaziorik aurkezten ez bada.

Norma Foral 11/1.989 de 5 de julio, Reguladora de las Haciendas Locales de Gipuzkoa, entendiendo que el mismo, de carácter provisional, deviene definitivo si no se presentan reclamaciones.

Donostia, 2017ko irailaren 14a

San Sebastián, 14 de septiembre de 2017

UDALBATZAREN IDAZKARI NAGUSIA  
EL SECRETARIO GENERAL DE PLENO

JUAN CARLOS ETXEZARRETA VILLALUENGA